

Urte amaiera bitarte programazio anitza antolatu du San Telmo Museoak, lan ildo berriak barne

COVIDak eragindako egoeraren ondorioz aldaketak egin behar izan ditu museoak 2020ko eta 2021eko programazioan. Egokitzapenak eginda, proposamen interesgarriekin osatu da urte amaierako hiruhilekoa.

San Telmo Museoko 2020ko udazkeneko programazioa egungo egoera kontuan hartuta sortu edo egokitutako programazioa da. Museoak aurreikusitako proiektu berrikin aurrera egitea erabaki du kasu batzuetan; bestetan, proposamenak egokitu egin dira guztiz, emaitza berrikin; online jarduera gehiago egingo ditugu, presentzialtasunari ere uko egin gabe, segurtasuna bermatuz.

Azpimarratzeko hainbat berrikuntza daude programazio honetan: **Barne begiradak** programa martxan jarriko dugu, museoaren artelanen inguruan sakontzeko hitzaldi ziklo batekin, adituen eskutik; **haur eta familientzako** asteburuko eskaintza egokitu dugu eta familiek museoa bere kasa bisita dezaten astero proposamen bat egingo diegu, ostiraletan eskura jarriko duguna bisita nork bere kasa egin ahal izan dezan familia unitatean; erakusketen programazioa egokitu behar izan dugunez, museoko erakusketa aretoan programazioa aurreikusita ez zegoen **Urgullen magalean** erakusketa jarri dugu ikusgai. Donostiarren eta gipuzkoarron ondarea ikusgai jartzeko aukera paregabea ematen digu.

Publiko orokorrari zuzendutako jarduera ugari programatuko ditugu, besteak beste bisita gidatu ezberdinak. +55 Kultur Gidek adin horretako ikusleentzat bisitak egiteari berriro ekin diote. Publiko berezientzako ere badira eskaintzak, besteak beste nagusiki irakasleei zuzendutako *Dolugelan* jardunaldia, *online* burutuko dena eta bi saio izango dituena azaroaren 28an. Musikagileen eskutik musika garaikideak presentzia izango du museoan aurretan ere; argazki-liburuen inguruko sortzaileen aurkezpenak izango ditugu; museoan zehar egingo diren bisita-esperientziak; Zumetaren oriomenean prestatutako emanaldia...

Museoaren programazioa ezagutzena emateko, bestalde, agendaren formatua eta maiztasuna ere aldatu ditugu, eraginkorragoak izan asmoz. Hiruhileko jarduera agenda prestatuko dugu hemendik aurrera eta 2020ko urritik abendura doana da lehenengo alea. Bertan, erakusketak, jarduerak eta museoko beste hainbat eduki partekatuko ditugu. Jarduera gehienetan parte hartzeko izena eman beharko da, eta horretarako webgunean erreserba sistema bat martxan jarri dugu.

Azkenik, bazkidetza sustatzeko helburuarekin abian jarri du kanpaina bat museoak. Honi esker, 2021eko bazkidetza orain eginez gero, urte amaiera bitarteko epe honetan dohainik disfrutatzeko aukera emango du.

Jarraian, programazioan azpimarratu nahi ditugunak:

ERAKUSKETAK

-***Urgullen magalean.*** 2020ko urriaren 10ean zabaldutako erakusketa. San Telmo Museoaren eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren bildumetako estanpak erakusten ditu, nagusiki Gordailuan kontserbatzen direnak. Hiriaren historia eta fisionomiaren bilakaera eta biztanleriak denboran zehar izan duen bizimodua ezagutzeko aukera ematen digute estanpa hauek.

-***Museo bikoitza*** proiektuaren 2020ko emaitza, Erlea Maneros Zabala artistarena, urriaren 30ean aurkeztuko dugu. Museo Bikoitza urtero artista gonbidatu batek San Telmo esku hartzeko programa bat da, museoarekin lotura duena proiektu argitaragabe baten ekoizpenean. Helburua bildumaren eta museografia-kontakizunaren berrikusketak ahalbidetzea da, hainbat artistaren eskutik.

- ***Artea abian*** programaren lehen erakusketa azaroaren 13an zabalduko da. Gipuzkoako lurraldean sormen lanean ari diren artistak sustatzeko urteko proiektuaren parte da erakusketa, Kutxa Fundazioarekin sinatutako akordioari esker. Lehen edizio honetan Nagore Amenabarre izango da erakusketa egingo duen artista.

12544n |

2020rako programatuta zeuden erakusketak, 2021era pasa direnak:

-***Bidaiarik luzeena. Lehen mundu bira*** erakusketa 2021era pasa da, eta ekainaren 25etik urriaren 24ra bitarte ikusi ahal izango da San Telmo Museoan.

ACEk antolatu eta ekoitzitako erakusketa hau 2019an aurkeztu zen Sevillako Indietako Artxibo Nagusian, eta gizakiak bidaiaaren eta ezezagunaren aurrean duen jarrerari buruzko gogoeta egiten du, historiaren munduari egindako lehen itzulia orainaldiiko erronka indibidualekin eta etorkizuneko erronka kolektiboekin lotuz.

-***Ikusgarritasunaren logikak*** erakusketa 2021eko udazkenean zabalduko da.

Erakusketa honek askotan ahaztuta dauden emakume artistek sortutako lanak berreskuratuko ditu, eta gure bildumetan duten presentzia handitzeaz gain, erakusketetan eta museoetako bildumetan ez egotearen arrazoia aztertu eta hausnartzeko aukera emango digu.

2021ean beste erakusketa batzuk ere egongo dira, aurrerago aurkeztuko ditugunak ohi bezala urte osoko programazioarekin batera.

JARDUERAK

Barne begiradak hitzaldi zikloa martxan jarriko dugu urriaren 15ean. Erakusketa iraunkorreko Arte Ederretako aretoetan dauden hainbat artelan aztertuko ditugu adituen begiradarekin. Gure asmoa da publikoak honezkerotz ezaugun dituen erakusketa iraunkorreko obra jakin batzuetan sakontzea eta bertatik bertara ezagutzea xehetasunez eta ikuspegi desberdinak, gure bildumak hobeto ezagutzeko. Jarraipena izango duen zikloa izango da.

2020rako, hauek dira aukeratu ditugun artistak: Zuloaga, Sorolla eta Arteta, eta honako programa osatu dugu:

- Urriak 15. **Sebas Agirretxe**: *Ignacio Zuloaga, 150 años. Su relación con el Museo San Telmo.* (cas)
- Urriak 22. **Ismael Manterola**: *Ignacio Zuloaga, 150 urte. San Telmo Museoko Zuloagak.* (eus)
- Azaroak 26. **María Jesús Cava Mesa**: *Sorolla y los Vascos. Memoria y personaje.* (cas)
- Abenduak 17. **Javier González de Durana**: *Aurelio Arteta: carácter, delicadeza y esfuerzo* (cas)

Familientzako proposamenak

COVID-19tik eratorritako segurtasun-premia berrien eraginez, familia-tailerren programa goitik behera birplanteatu dugu, programazioa, haren helburuak eta formatuak aldatuz. Eskaintza berriak museorako bisita librean du bere indargunea, erakusketa aretoetan edota etxearen egin daitezkeen jarduera autonomoak proposatzu. Ohiko tailer presentzialen ordez, norbere kabuz egin daitezkeen jarduera ludiko eta artistikoak prestatu dira.

Funtsean, familiekin harremana mantentzea, obrekin zuzeneko interakzioa indartzea eta museoa kultur aisiajirako leku seguru gisa aurkeztea du helburu. Bizikidetza-unitateetan aldizka agertzeak ere pilaketak ekiditen ditu, segurtasuna areagotuz.

Asteroko jarduera desberdin bat proposatuko da, bere azalpen-materialarekin, museoko sarreran eta webgunearen bitarte eskuragarri.

Bisita-esperientziak:

Helduei zuzendutako tailer bereziak izango dira, museora eta artelanetara hurbiltzeko beste moduak proposatuko dituztenak. Doan dira, web bidez lekua erreservatuta. Dagoeneko bururu dira lehenengo biak, leku gutziak beteta, eta urriaren 18an eta 25ean burutuko dira hurrengoak: **Gorputz korapiloa**, museora gorputzaren eta mugimenduaren bidez hurbiltzea proposatzen du, ikasteko eta esperimentatzeko bide gisa.

Urria, azaroa eta abenduko programazio osoa eta xehetasun guztiak agendaren pdf-an begiratu daitezke (honekin batera prentsa oharrean). Gerta daitezkeen aldaketak webgunean eguneratuko ditugu.

El Museo San Telmo presenta su programación para el último trimestre de 2020, reorganizada y con nuevas líneas de trabajo

El Museo San Telmo ha reorganizado su calendario de actividades y exposiciones temporales como consecuencia de la crisis del coronavirus. Tras esta adecuación, el final de año llega cargado de propuestas interesantes

La programación de otoño de 2020 del Museo San Telmo está creada o modificada teniendo en cuenta la situación actual. El museo ha decidido seguir adelante con algunos de los proyectos previstos, en algunos casos, mientras que en otros se han hecho modificaciones con el resultado de nuevas propuestas; se celebrarán más actividades *online*, sin dejar de lado, con todas las medidas necesarias, la modalidad presencial.

Hay más de una novedad para subrayar en esta programación: se pone en marcha el programa *Miradas personales*, un ciclo de conferencias para profundizar en la exposición permanente de la mano de expertos/as; se ha adecuado la oferta infantil y familiar y se harán propuestas semanales para visitar el museo en familia; se ha replanteado el calendario de exposiciones y se acaba de presentar la muestra *Al abrigo de Urgull*, una buena oportunidad para mostrar el patrimonio de donostiarras y guipuzcoanos/as.

El museo programará actividades para todos los públicos, entre otras las diferentes visitas guiadas; este mes de octubre se han retomado las de Guías Culturales +55. También hay lugar para público especializado, como la jornada *Dolugelan*, principalmente dirigida a docentes y que se desarrollará *online* el día 28 de noviembre; la música contemporánea llegará de la mano de Musikagileak, habrá programación en torno al fotolibro, un recuerdo a Zumeta, visitas-experiencia...

Para dar a conocer la programación del museo, por otra parte, se ha modificado el formato de la agenda y su periodicidad, que pasa a ser trimestral, con el primer ejemplar que va de octubre a diciembre de 2020. Por otra parte, el museo ha habilitado en su web la posibilidad de reservar plaza de manera sencilla para las actividades gratuitas.

Finalmente, con el objetivo de aumentar el número de socias/os, el museo ha puesto en marcha una campaña por la que dándose de alta ahora para 2021, se podrá disfrutar hasta fin año gratuitamente de las ventajas de ser socio/a.

A continuación algunos destacados:

EXPOSICIONES

-*Al abrigo de Urgull*: la exposición se ha abierto al público el 10 de octubre. Muestra estampas de San Sebastián, la mayoría pertenecientes a las colecciones de San Telmo Museoa y la Diputación Foral de Gipuzkoa, que se conservan sobre todo en Gordailua. Recoge una interesante memoria gráfica desde los siglos XVI a XIX.

-*Museo Bikoitza*. El resultado del trabajo desarrollado por Erlea Maneros Zabala se presentará el 30 de octubre. Museo Bikoitza / Museo Doble es un programa de intervenciones en el museo que realiza anualmente un/una artista invitado/a y que trabaja en conexión con el museo en la producción de un proyecto inédito.

-*Artea abian*: la primera exposición de este proyecto anual creado por San Telmo Museoa y Kutxa Fundazioa se presentará el 13 de noviembre, con la artista Nagore Amenabarro.

Exposiciones que se retrasan:

-*El viaje más largo. La primera vuelta al mundo* se retrasa a 2021, del 25 de junio al 24 de octubre. La primera vuelta al mundo es quizás la mayor aventura marítima de todos los tiempos, una proeza técnica y humana cuyo dramatismo supera los límites de la imaginación, pero sobre todo –y este hecho queda a veces oculto tras la sensacional aventura– es un acontecimiento clave en la historia, es el epílogo de una serie de viajes oceánicos que partiendo de la península ibérica revolucionaron el conocimiento humano y crearon las bases del mundo moderno.

La exposición, organizada y producida por ACE, que se presentó en 2019 en el Archivo General de Indias de Sevilla, reflexiona sobre la actitud del ser humano ante el viaje y lo desconocido conectando la primera vuelta al mundo de la historia con los desafíos individuales del presente y los retos colectivos del futuro.

-*Lógicas de la visibilización* se retrasa del otoño de 2020 al otoño de 2021.

Esta exposición rescatará del olvido las obras creadas por mujeres artistas y nos permitirá no solo incrementar su presencia en nuestras colecciones, sino también analizar y reflexionar sobre los motivos de esas ausencias en exposiciones y colecciones de museos.

ACTIVIDADES

El 15 de octubre ponemos en marcha el ciclo **Miradas personales**, en el que se analizarán diversas obras de las salas de Bellas Artes en la exposición permanente, desde la perspectiva de diferentes expertos/as. El objetivo es profundizar en algunas de las obras de nuestra exposición que quizá ya conocíamos pero a las que nos acercaremos con otras miradas. Es un ciclo que tendrá continuidad.

Para 2020 hemos seleccionado a los artistas Zuloaga, Sorolla y Arteta, y hemos confeccionado el siguiente programa:

- 15 de octubre. **Sebas Agirretxe**: *Ignacio Zuloaga, 150 años. Su relación con el Museo San Telmo.* (cas)
- 22 de octubre. **Ismael Manterola**: *Ignacio Zuloaga, 150 urte. San Telmo Museoko Zuloagak.* (eus)
- 26 de noviembre. **María Jesús Cava Mesa**: *Sorolla y los Vascos. Memoria y personaje.* (cas)
- 17 de diciembre. **Javier Gonzalez de Durana**: *Aurelio Arteta: carácter, delicadeza y esfuerzo* (cas)

Propuestas para familias

Hemos revisado de arriba abajo el planteamiento de la oferta familiar ante la nueva situación y hemos modificado las previsiones que teníamos en programación, objetivos y formatos. La nueva oferta hace hincapié en la visita libre de la familia al museo, facilitando material para realizar las propuestas en las salas del museo o bien en casa tras realizar la visita. En lugar de los habituales talleres presenciales, se proponen actividades lúdicas y artísticas que se pueden llevar a cabo de forma autónoma.

Básicamente, queremos mantener la relación con las familias, fomentar la interacción con las obras y mostrar el museo como lugar seguro. La realización de la visita en unidades familiares contribuye a poder mantener las medidas de seguridad necesarias.

El museo propondrá cada semana una actividad diferentes con su material explicativo, que se pondrá a disposición en el museo y en la página web, gratuitamente.

Visitas-experiencia

Talleres dirigidos a público adulto, que propondrán una manera diferentes de acercarse al museo y a sus obras. Gratuitos con reserva de plaza. Ya se han celebrado los dos primeros, el 4 y 11 de octubre, con las plazas agotadas, y los siguientes se celebrarán el 18 y 25 de octubre, *Gorputz korapiloa / Cuerpos enredados*, que explorarán maneras de acercarse al museo mediante la danza y el movimiento, como forma de aprender y experimentar.

El programa completo de octubre, noviembre y diciembre se puede consultar en el pdf de la agenda, enviado junto con la nota. Los cambios que se produzcan se actualizarán en la página web del museo.